

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
20/2012	R4/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

R 4/2015 Ebazpena
20/2012 Espedientea

Gasteizen, 2015eko martxoaren 2an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

Estatuko Zerga Administrazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako gatazkari dagokionez, ZERGAPEKO jaunaren (NAN ----) helbide fiskalaren inguruan sortutako desadostasuna konpontzeko; izan ere, 2007ko urtarrilaren 1etik Madrilen dagoela uste da. Gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean izapidetzen ari da, 20/2012 espediente-zenbakiarekin, Gabriel Casado Ollero jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1.- Gatazka hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziak aurkeztu zuen bere zuzendari nagusiaren idazkiaren bidez. Idazkiak Posta Zerbitzuaren 2012ko maiatzaren 24ko data zuen, eta hurrengo egunean, 25ean, erregistratu zen horren sarrera Arbitraje Batzordean.

Aipatutako idazkian azaltzen da, 2012ko otsailaren 24an, Euskadiko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Bereziaren Erakunde Harremanetarako Eskualdeko Sailaren buruak Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi ziola, Itunaren 43.Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera, ZERGAPEKO jaunaren helbide fiskala BIZKAITIK MADRILERA aldatzeko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
20/2012	R4/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

proposamena, eraginetarako data 2007ko urtarrilak 1 duela. Azalpen-idazkiak adierazten du aipaturako proposamenak Madrilgo eta Euskadiko Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Ordezkaritzen Ikuskapen Sailen txostenak eransten zituela (2011ko azaroaren 25ekoa eta 2012ko otsailaren 14koa, hurrenez hurren), bai eta azalpen-idazkiarekin batera bidalitako beste dokumentu batzuk ere.

Dokumentazio horrek Madrilgo eta Euskadiko Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Berezien Ikuskapeneko Eskualde Sailek gauzaturako jardueren emaitzak jasotzen ditu, bai eta, Ekonomia Itunaren 43. Artikuluan oinarrituta, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari zergapekoak helbide fiskala lurralde erkidean duela ondorioztatzea ahalbidetzen dioten datuak eta frogak ere; «izan ere, bertan kokatzen dira bere ohiko etxebizitza, bai eta bere interesen gune nagusia ere».

2.- Bizkaiko Foru Aldundiari helbide fiskala aldatzeko proposamena jakinarazi zitzaienetik bi hilabeteko epea igarota (Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikulua), horrek erantzunik eman gabe, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak «ulertzen du [Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 13.1 artikulua] interpretazio jakin baten arabera] hura [BFA] ez dagoela ados, helbide fiskalaren aldaketari dagokionez, proposaturako atzeraeragineko datarekin. Horregatik, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 13.2 artikuluan aurreikusitako hilabeteko epearen barnean, Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzunik izan gabe, gatazka hau aurkezten da» (Bosgarren Jazoeraren Aurrekaria).

Azalpen-idazkia Arbitraje Batzordeari ZERGAPEKO jaunak helbide fiskala 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera Madrilen izan duela aitortzeko eskatuz amaitzen da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
20/2012	R4/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

3.- Gatazka honen izapidetzea onartu aurretik, 2014ko abenduaren 3an, hilabete bereko 1ean prestatutako Bizkaiko Foru Aldundiaren Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko zuzendariordearen idazkia erregistratu zen. Bertan, adierazten du, data berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiaren hitzarmena eman dela, jarraian adierazitako terminoetan:

«Joan den 2012ko maiatzaren 24an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiarekin maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 65. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen aurrean jarritako gatazkari amore ematea, ZERGAPEKO jaunaren (NAN ----) helbide fiskalaren zehaztapenaren inguruan; izan ere, ulertzen du, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean xedatutakoaren arabera, hori Madrilan dagoela, 2007ko urtarrilaren 1etik.»

Aipatutako idazkiari Bizkaiko Foru Aldundiaren Ogasuneko zuzendari nagusiaren hitzarmena eta oinarri gisa erabilitako Foru Ogasuneko Koordinazioko eta Laguntza Teknikoko 2014ko abenduaren 1eko proposamena eransten zaizkio. Bertan, honako hau jakinarazten da:

«2012ko irailaren 6an, Bizkaiko Foru Ogasuneko Errolda Kontroleko eta Tokiko Tributuen Zerbitzuko buruak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion, Tributuen Foru Ikuskapenak prestatutako txostenaren arabera, Administrazioa ados zegoela Zerga Administrazioko Estatu Agentziak proposatutako helbide fiskalaren zuzenketarekin; horrek Arbitraje Batzordearen aurrean sortutako gatazkaren xedearen galera eragiten du.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
<i>20/2012</i>	<i>R4/2015</i>	<i>2015-03-02</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

Nolanahi ere [eransten da], Bizkaiko Foru Ogasunak ez du Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazkari uko egin dionaren berririk izan.

Horiek horrela [ondorioztatzen da], egokia da Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako gatazkan amore ematea, aipatutako gatazkaren xedearen galera dela eta».

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Amore ematearen irudia 30/1992 Legean aurreikusita ez badago ere (horri lotzen zaio EIABAREN 8. artikulua, jarduteko araubidearekin zerikusia duen orotarako), atzera egitea aurreikusten da, prozedura amaitzeko modu bezala (30/1992 Legearen 91.2 artikulua). Batzordeak aplikatu du dagoeneko modu hori, gatazka jasandako Administrazioak Administrazio sustatzailearen uzia zehazki konpondu zuen prozeduretan (hala nola, abenduaren 20ko 3/2010 Ebazpena, 34/2008 espedientea; maiatzaren 26ko 16/2011 Ebazpena, 25/2010 espedientea; urriaren 29ko 14/2012 Ebazpena, 24/2012 espedientea eta abenduaren 19ko 8/2014 Ebazpena, 90/2011 eta 96/2011 pilatutako espedienteak). Antzeko arrazoiak direla eta, honetan ere hori aplikatu behar dugu, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasuneko zuzendari nagusiak 2014ko abenduaren 1ean Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2012ko maiatzaren 24an aurkeztutako gatazkarako hitzartutako amore-ematea ikusita.

Arbitraje Batzordeak espedienteak eskainitako gai guztiak konpondu behar dituzenez, alderdiek proposatu edo ez (Ekonomia Itunaren 67. artikulua), gatazka honen amaieraren inguruan aurretik doan hitzarmenarekin batera, beharrezkoa da zenbait kontsiderazio gehigarri egitea, orain amaitzen den prozeduraren bilakaeraren eta berezitasunaren inguruan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
20/2012	R4/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

2.- Lehenengoa, bi hilabeteko epean, BFA Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan xedatutakoaren arabera, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2012ko otsailaren 24an jakinarazitako helbide fiskala aldatzeko proposamenaren alde agertuz gero, eskumen-gatazka hori gertatuko ez zela nabarmentzera zuzendua.

Hala ere, gatazka horren planteamendua saihestu zitekeen, sustatu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduko 13.1 artikuluan ezarritako bi hilabeteko epean Foru Ogasunak erantzun ez izanaren interpretazio ezberdina egin izan balu. Azalpen-idazkiak adierazi bezala (Zfr; Bosgarren Ekintzaren Aurrekaria), kasu honetan, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak interpretatu zuen, BFAk erantzun gabe igarotako bi hilabeteko epeak ulertarazten ziola hori ez zegoela ados proposatutako helbide fiskalaren aldaketarekin; egoera horrek Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudia (EIABA) 13.2 artikuluan ezarritako hilabeteko epearen hasiera eragiten zuen eta, hori gaindituta, desegokia izango litzateke.

Nolanahi ere, hori ez zen bi hilabeteko epean errekeritutako Administrazioaren erantzun-falta ulertzeko modu bakarra (Itunaren 43.Bederatzi artikulua eta EIABAREN 13.1 artikulua), ez eta gatazka aurkezteko hilabeteko epeari buruzko EIABAREN 13.2 artikulua interpretatzeko modu bakarra ere. Kontuan izan behar da, «Zerga Administrazioa bere eskumenean tazituki berresten dela, jasotzen denetik eta hilabeteko epean inhibizio-errekerimenduari erantzuten ez dionean» ulertzer behartzen duen EIABAREN 13.1 artikulua aplikatzen duten eskumen-gatazka positiboetan gertatu ez bezala, zergadunen helbideratzearen ondorioz sortutako gatazketan, Itunaren 43. artikulua Bederatzigarren atalak aipatzen duen bi hilabeteko epearen [egun, lau hilabete] iragateari EIABAREN 13.1 artikulua lotzen dion eragin bakarra ez dela helbidea aldatzeko proposamena ukatutzat jotzea, baizik eta «gatazka aurkeztu ahal izateko (...), aginpiderik

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
20/2012	R4/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

ezaren errekerimendua edo aitorpena gauzatzea ez dela beharrezkoa izango» pentsatzea. Eta hori «zergadunen helbideratzearen ondorioz sortutako desadostasunetan», garrantzitsuena ez delako isiltasuna edo erantzun-falta, baizik eta desadostasuna, eta ezerk ez du behartzen erantzun-falta hori desadostasun bezala identifikatzera nahitaez. Hori da esanguratsu bakarra gatazkaren aurkezpen-bidea irekia uzteko, desadostasuna berretsita, aginpiderik ezaren errekerimendua edo aitorpena gauzatzea beharrezkoa izan gabe; izan ere, kasu horietan, «helbidea aldatzeko eskaera soilak irekitzen du bidea, ukatuz gero, gatazka Arbitraje Batzordearen aurrean aurkezteko» (2012ko ekainaren 7ko Auzitegi Gorenaren Epaia, errek. 9/2011, Seigarren Oinarria).

Nolanahi ere, ezerk ez badu helbide fiskala zuzentzeko interesa duen Administrazioa errekeritutako Administrazioaren erantzun-falta desadostasun bezala interpretatzera behartzen ere, egia da, Auzitegi Gorenak aipatu berri den Epaian adierazi bezala, «ezerk ez duela galarazten, ezarritako epean erantzunik izan ezean, aldaketa sustatu zuen Administrazioak egokitzen jotzen duenean, aldaketa-proposamena tazituki gaitzetsizat jotzea eta gatazka formalki sustatzea, isiltasun negatiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta, eragiten dion zergapekoaren segurtasun-gabezia juridikoa eskatu ahal izan gabe; izan ere, ebazpenean izandako atzerapenaren ondorioak, baleude, Administrazio eskudunak praktikaturako likidazioaren arabera eskatu behar dira» (Seigarren Oinarria).

Hitz batez, 24/2012 espedientea duen urriaren 29ko R14/2012 Ebazpenean esan bezala, Auzitegi Gorenak helbide fiskala aldatzea sustatzen duen Administrazioari ematen dion ahalmena mugatuta dago, argi eta garbi, eta fede onaren eskakizunekin bateratu behar da nahitaez. Horrela, horrek ez luke gaitzetsizat jo behar helbidea aldatzeko proposamena, aurretik, koordinazioko edo lankidetzako printzipio orokorrek eskatzen dituzten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
20/2012	R4/2015	2015-03-02	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

Administrazioen arteko barne-komunikazio-bideetan edo helbide-aldaketarako prozeduretan erlazionatzeko zehazki ezarritakoetan, helbide fiskala aldatzeko proposamenaren aurrean interpelatutako Administrazioaren jarrera zein zen ikertu gabe, batez ere, Itunaren 43.Bederatzi artikuluan aurreikusitako prozedura «lagunkoiaren» praktikorako orduan gaitutako bi hilabeteko epea kontuan izanda.

3.- Baina, Administrazio interesdunetako baten jarduera ezberdina izanez gero, gatazka saihestu ahal zitekeen alde batera utzita, nabarmendu beharreko garrantzitsuena da (eta hori iragarritako bigarren kontsiderazio gehigarria da) bi Administrazioek mekanismo juridiko eraginkorrak zituztela euren zerbitzura gatazka amaitzeko, zergadunaren helbide fiskalari buruzko desadostasunik ez zegoela ikusi bezain laster; hori 2012ko irailaren 6an gertatu zen. Egun horretan, Bizkaiko Foru Ogasunak Zerga Administrazioko Estatu Agentziari jakinarazi zion ados zegoela zergapekoaren helbide fiskalaren zuzenketarekin, proposatutako baldintzetan.

Beraz, gatazka zergadunaren helbideratzeari buruzko Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta BFAREN arteko desadostasunik izan gabe aurkeztu zen, baina ezin izan zen saihestu, BFAk bere adostasuna agertzeko izandako atzerapenaren ondorioz, bai eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gatazka aurkezteko izandako bizkortasunaren ondorioz ere; izan ere, Foru Ogasunaren erantzun-falta errefusatze edo desadostasun gisa interpretatu zuen.

Gainera, xede-falta dela-eta, gatazka aurkeztu behar ez bazen ere, hori ez da justifikatu; izan ere, beharrik gabe aurkeztu zen 2012ko irailaren 6an eta bi Administrazioek pasibotasuna eta interes-falta agertu dituzte hori amaitzeko, prozedura sustatu zuen Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez baitio inoiz uko egin eta, orain arte, Bizkaiko Foru Aldundiak ez baitu konpondu.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
<i>20/2012</i>	<i>R4/2015</i>	<i>2015-03-02</i>	<i>Bizkaiko Foru Aldundia</i>	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Pertsona fisikoaren helbide fiskala</i>

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

- 1.- 20/2012 gatazka amaitzea, 2014ko abenduaren 3an jakinarazitako Bizkaiko Foru Aldundiak amore ematearen ondorioz.
- 2.- Ebazpen hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta Bizkaiko Foru Aldundiari jakinaraztea.